



Euskal Herriko 3. Txapelketa Herrikoiko sari banaketa. GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

SAGARDO TXAPELKETAK

Euskal Herriko 3. Sagardo Txapelketa Herrikoiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako 16. Sagardo Lehiaketako irabazleak Gaztañaga eta Altzueta sagardotegiak izan dira, hurrenez hurren.

Guztira, Euskal Herriko 41 sagardotegitako sagardok hartu zuten parte Euskal Herriko III. Sagardo Txapelketa Herrikoian. Final handia irailaren 30ean izan zen Azpeitiko Berdura plazan, eta, aurretik, 4 finalaurreko egin ziren Ordizian, Andoainen, Zarautzen eta Oiartzunen, irailean. Andoingo Gaztañaga sagardotegia izan zen irabazlea, eta Adunako Aburuza eta Astigarragako Irigoien-Herrero sagardotegiak gelditu ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

210 pertsonak osatu zuten herri epaimahaia, eta afari bikainak eta giro paregabeak lagunduta bete zuten beren zerregina. Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia Herriarren neurria egindako txapelketa da, eta 2017ko aldian Euskal Herriko 41 Sagardotegitako sagardo dastatu eta puntuatu ziren afaltzera inguratu diren guztien artean. Epaimahaikide gisa herritarrek parte hartu zuten txapel-

ketan, sagardoaz gozatzea baita baldintza bakarra.

Afaltzera eseri, eta ateratzen zituzten sagardoak dastatu, eta nork bere gustu eta iritziaren arabera nahi zuen puntuazioa eman zion, bostetik hamarre-

ra. Beraz, epaile izatea, afaltzera eseri eta sagardoak dastatzea zen, lagunarteko giroan. Bidenabar, aukera ematen zuen herritar ugariaren iritzia jakiteko, eta hori oso interesgarria da sagardogileentzat.

Jendea afaltzen hasi orduko, hasi ziren sagardoa mahaia ateratzen, eta jendeak sorta bakoitzari puntuak ematen zizkion. Inork ez zuen jakin zein sagardotegitako sagardoa dastatu zuen sari banaketaren garairarte.

Finalean dastatu ahal izan zen menua euskal produktuetan oinarritu zegoen, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak nahiz Basatxerri eta Lurlan elkarteek duten elkarlanerako proiektua dela eta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako 16. Sagardo Lehiaketa, berriz, Hernaniko Altzueta sagardotegiak irabazi zuen. Adunako Aburuza sagardotegia bigarren postuan geratu zen, eta Asteasuko Sarasola sagardotegia, berriz, hirugarren. Donostian izan zen ekit aldia, ekainaren 3an, eta Fraisoroko dasta-panelek kideak erabaki zuten zein den 2017ko Gipuzkoako sagardorik onena.

Gipuzkoako 18 udalerritako 29 sagardotegik eman zuten izena Gipuzkoako 16. Sagardo Lehiaketan parte hartzeko.



Gipuzkoako 16. Sagardo Lehiaketako sari banaketa. TOLOSALDEKO ATARIA